

## Libertatea, eskubideak eta beste landare batzuk



**JOSE IGNAZIO  
ANSORENA MINER**  
TXISTULARIA

**U**rte batzuk badira *Libertatea*, arrantzaleen abesti zaharra ekarri nuela orri hauetara:

*Libertatea eskatu diogu  
herri hontako Alkate jaunari  
eta jendea alegratzera  
gaur gera gu honera etorri*

Aurrenekoz entzun nuenean, Francoren garai ilunetako gaztetxo ni, aldarri subertsiboa iruditu zitzaidan. Baina kontu arruntagoa zen libertatea: udaletxeetan, ordainketa bidez, lortzen zen baimen berezia. Ordu txikietan, isunik jaso gabe parrandan ibili ahal izateko txartela. Zerikusirik ez egungo ohiturekin: gehienez, gaueko 24ak arte ematen baitzen. XX. mendearen erdira arte luzatu zen baimen horien eskatu beharra hainbat herritan.

Hitz sakratua nahiko baxatua zegoen beraz. Beherago eraman dute Madrilgo azken hauteskundeetan hainbesteko arrakasta lortu duen leloan. Idolo faltsu bihurtu eta jende andana hura gurtzen ikusi dugu.

Espainiako Estatuan alarma egoera amaitzean antolatutako desfase festetan parte hartu zuen gazte baten adierazpenak entzun nituen telebistako berrietan: "Gure aiton-amonek eta gurasoek ere parrandak egin zituzten gaztetan. Guk ere eskubidea dugu". Historian doktore tesia behar zuen izan gazteak.

Pertsonen edo taldeen eskubideak ez daude zeruan idatzita letra handi argitsuetan, denok ikus ditzagun eta euren ezinbestekotasuna onar dezagun. Eskubideak eraikuntza kulturalak dira, historikoak. Maiz pertsona askoren lanez, sakrifizioz eta eskuzabaltasunez lortuak. Sarriegi espetxe urteen edo heriotz absurduen truke irabazitakoak. Demokrazia bera, aldaera guztietan, sorkuntza kulturala da.

Eskubideak landareak edo ume txikiak bezalakoak dira, egunero zaindu behar, laztankiro, bestela aise galtzen direlako. Harritzko aroan, indartsuak gaztako ematen zion ahulari eta menderatu egiten zuen, morroi bihurtzen. Emakumeekin gertatutakoa adibide. Oraindik ere oso antzekoak jazotzen dira munduko bazter askotan. Hemen bertan ere bai, disimuloz egiten den arren.

Pertsonak oso aldakorrek gara, bereziki beldurrak edo harropuzkeriak hartzen gaituenean, eta saldo handitan oso zirrikitu estua uzten diogu pentsamendu burutsuari. Horregatik oso erraza da mugimendu espasmodikoa eragitea gure eskasien irinez oratu eta masa deitzen den horretan.

Gizartearen buruzagiak horretan hasten direnean, iruzurra egiten ari dira, purtzilari bihurtzen. Ez dute gure bidea markatzea merezi, arrisku handiegia da. Gaur ez gara konturatuko agian. Baina etzi negar egingo dugu eta orduan besteei errua leporatuko. ●

## Kantuterapia



**LEIRE NARBAIZA  
ARIZMENDI**  
IRAKASLEA

**G**orabehera emozional handiekin nabil azken aldian. Batzuetan, oso berri txiki on batek goian jartzen nau. Baina, era berean, kontrara ere egoten naiz, behean. Eguneroko arazok eta estres arruntak birrikak estutu eta antsiatuta naukate. Ingurutik eta mundutik datozkigun albiste ankerrek ere ez dute laguntzen arnasten. Palestinaren kontrako Israelen sarraskiak, Zaldibarko zabortegean Joaquin Beltranen gorpua bilatzeari uzteak ez didate lagatzen bular aldea nasaitzen, gehiago lauskitzen didate arnasa aparatua. Antsietatea. Pandemiak berak handitu egiten digu ondoeza,

eta izurrite sasoi honetan askoren egoera dela badakit.

Halere, itolarriak jotzen nauenerako topatu dut irtenbidea. Ez da behin betikoa, baina momentuko estutasuna baretzen dit, gorako bidean jarri. Bizitzak estu hartzen nauenean, automobilean lanerako joan-etorrietan, musika jarri eta oihuka kantatzen dut, dena emanda. Kantu zahar eta betikoak, epikoak, arrandiatsuak. Baretu eta alaitasuna eragiten dit horrela abesteak. Estutasuna desegin egiten zait, arnasa hartzeko modua onera etorri. Zoragarria da. Proba ezazue!

Funtziona. ●